



# ALDAKETA SOZIALERAKO aurrekontu sozial, partehartzaile eta burujabeen alde



2015. urteko martxoaren 14ean Euskal Herriko eskubide sozialen Kartaren inizatibaz, Bilboko kaleetan 7.000 herritar mobilizatu ginen aldaketa soziala eskatzeko. Bi urte geroago, EAE-ko aurrekontuen aurrean kalera aterako gara, aldaketa soziala gauzatu eta politikaren lehentasunak aldatzeko mobilizazioa ezinbestekoa delako.

2008. urtean lehertu zen krisialdi finantzarioaren aurrean, eredu berria baten alde egin beharrean, politika neoliberalerant sakontzea erabaki zuten elite politiko zein ekonomikoek. Ordutik hona Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundien zerga eta aurrekontu politikek bide hori inplementatu dute. Azken urteotan gutxi batzuen interesen aldeko politikak sustatu dituzte erakunde hauek egonkortasun zein modernitatearen izenean, prekarietate zein pobrezia egoera betikotuz herritarron gehiengoarentzat.

Aurrekontuak oinarritzko tresna dira, egungo politikaren lehentasunak aldatu edota politika neoliberalerant sakontzen jarraitzeko. Eusko Jaurlaritzak aurkeztu berri duen aurrekontu proiektua aztertu ondoren, zoritxarrez, honako ondorioa atera dugu: Eusko Jaurlaritzak herritarron behar zein interesak alboratzea erabaki du, proiektu neoliberalerant sakonduz eta Araba, Gipuzkoa zein Bizkaian proiektu sozial, parte hartzaile eta burujabeen muzin eginez.

Formari dagokionez, inolako eztabaida edota parte hartze sozialik gabe proposaturiko aurrekontu neoliberalak dira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Patronalaren, elite ekonomiko eta alderdi kontserbadoreen interesak gailentzen direlako.

Edukiari dagokionez, PNV-PSEE arteko Gobernu Akordioa garatzea dute helburu. Batetik, diru publikoaren bilketa ez da nahikoa, ezta justua ere ez, enpresek eta kapital errentek beharko luketeena baino askoz gutxiago ordaintzen dutelako. Bestetik, ez dira beharrezkoak diren inberstioak egiten sektore publikoa garatu, enplegua sortu eta behar sozialei erantzuteko.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian aberastasuna badago herritarren beharrak bermatzeko. Era berean, aurrekontu sozial, parte hartzaile eta burujabeen aldeko gehiengo soziala ere badago, politikaren lehentasunak aldatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu neoliberalak direla salatu nahi dugu. Alternatiba sozialak badaude, baina gure agintariak ez dute borondate politikorik bide hori egiteko. Aurrekontuen oinarriak zeintzuk diren kontuan hartuta, argi dago ez dagoela aukerarik ikuspuntu sozial batetik proiektuaren inguruan akordio batera iristeko. Alternatibak argi eta garbi jarri behar dira mahai gainean. Horregatik, abenduan Labriten egin genuen bezala, aurrekontu sozial, parte hartzaile eta burujabeak aldarrikatzeko, martxoaren 17an (ostirala) ekitaldia egingo dugu 10:30tan hasita Gasteizko Mendizorrotza pilotalekuan. Ondoren, manifestazioa egingo dugu Legebiltzarreraino "ALDAKETA SOZIALERAKO, Aurrekontu sozial, parte hartzaile eta burujabeen alde" lemapean.

HAUEK DIRA GURE ALDARRIKAPENAK:

1. Aldaketa soziala aldarrikatzen dugu. **Aldaketa estrukturala nahi eta behar dugu politika publikoetan:** aberastunaren banaketa, kalitatezko enpleguaren sorrera, bizitzaren iraunkortasuna eta askatasun zein kultur eskubideen defentsa oinarri izango dituen.

2. **Sakoneko erreforma** fiskala gauzatzea eskatzen dugu, gehien dutenek gehiago ordain dezaten. Iruzur fiskala eta kapitala eta errrenta altuei azken hamarkadetan eman zaien pribilegiozko tratamenduarekin bukatzea exijitzen dugu. Aberastunaren banaketa ahalbideratzeko politika fiskal justu eta progresiboa aldarrikatzen dugu. Neurriok ezinbestekoak dira diru sarrerak handitzeko, beti ere zerbitzu publikoak, enplegua, babes soziala eta kultur-hizkuntza eskubideak sustatze aldera.

3. Jendarteak zor handia du emakumeekin, eurak gauzatzen baitute eguneroko bizitza sostengatzen duen zaintza lana; modu ikusezin eta prekarioan, gainera. **Genero ikuspegia duten aurrekontuak** oinarritzko tresna dira emakumeen behar espezifikoak erantzuteko, baita gehiengoarentzat bizitza duina bermatzeko eta genero arteko botere harremana estrukturalak eraldatzeko ere.

4. Energiaren ekoizpen eta komertzializazioaren gaineko kontrol publikoa ezarri, **eredu energetikoaren trantsizioa zein burujabetza ahalbideratuko duten ekoizpen zein jarduera iraunkorrak** bultzatuz.

5. Abiadura Handiko Trena, Fracking-a, gas putzuak, Garoña, Errauskailuak... proiektuak eten. Natura zein gure osasunarentzat kaltegarriak diren, alperrikakoak eta aurrekontuen poltsa xahutzen duten proiektu guztiak gelditu, **eztabaida sozial parte hartzailea sustatuz** eta proiektu hauek suposatzen duen gastua babes sozialean inbertituz.

6. **Babes Sozialeko sistema publiko, integral, duin eta kalitatezkoa** aldarrikatzen dugu, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jarriko duen jendarte ereduaren norabidean kokatuko dena. Horretarako,

- DBE-ari (diru-sarrerak bermatzeko errentari) Lanbidek kudeatzen dituen beste prestazioei aplikatu diezaietela LGS-ak (Lanbide arteko gutxieneko soldatak) izan duen %8-ko igoera.
- Indargabetu dezatela prestazio sozialen zenbatekoan %7ko murrizketa ezartzen duen xedapen gehigarria.
- Pentsio sistema publiko propioaren bidean urratsak ematea.

7. **Oinarritzko eskubide sozialak herritar guztioi**, inolako diskriminaziorik gabe eta emergentzia sozialean daudenei lehentasunez, bermatzea:

- Alokairu sozialeko etxebizitza eskuratzeko aukera bermatu eta etxebizitza hutsen gaineko zerga ezarri.
- Menpekotasun egoera ororen estaldura, kalitatezko zerbitzu publikoen bidez.
- Osasun zerbitzu eta arreta unibertuala.
- 0 – 3 urte artean eta gainerako hezkuntza etapatan (goi mailako irakaskuntza barne), dauden (plaza) eskaera guztiak sare publikoan estaltzea, doan.

8. **Zorraren auditoria** azken muturreraino eramateko konpromisoa berrresten dugu. Obra erraldoiak, ezkutuko mugimenduak eta enpresa publikoen sare iluna dira zorraren egileak. Auditoria ikusten dugu zor ilegal hori ez ordaintzeok urrats gisa.

9. **Aurrekontu parte hartzaileak** aldarrikatzen ditugu, politika publikoak diseinatu zein erabakitzeo herritarron parte hartzea ahalbideratuko duten baliabideak bideratuz.

10. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian **eredu sozial zein ekonomikoari buruzko erabakiak modu burujabeen hartzeko eskubidea** aldarrikatzen dugu.

**Gasteizen, 2017ko martxoaren 15ean**



# Presupuestos sociales, participativos y soberanos PARA EL CAMBIO SOCIAL



El 14 de marzo de 2015, a iniciativa de la Carta Social de Euskal Herria, 7.000 personas nos movilizamos en las calles de Bilbao reivindicando un cambio social. Dos años después, volveremos a salir a la calle ante los presupuestos de la CAV, pues consideramos imprescindible la movilización para llevar a cabo el cambio social y para cambiar las prioridades políticas.

Ante la crisis financiera que estalló el año 2008, en lugar de trabajar por un nuevo modelo, las élites políticas y económicas decidieron profundizar en las políticas neoliberales. Desde entonces, las políticas recaudatorias y presupuestarias del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales las han implementando. Durante los últimos años, dichas instituciones han fomentado políticas que favorecen los intereses de unos pocos en nombre de la estabilidad y la modernidad, eternizando la situación de precariedad y pobreza en la mayoría de la ciudadanía.

Los presupuestos son herramientas básicas para cambiar las prioridades de las políticas actuales y para continuar profundizando en las políticas neoliberales. Después de haber analizado el proyecto presupuestario, recién presentado por el Gobierno Vasco, desgraciadamente, hemos sacado la siguiente conclusión: el Gobierno Vasco ha decidido relegar las necesidades y los intereses de la ciudadanía, profundizando en el proyecto neoliberal y rechazando un proyecto social, participativo y soberano en Araba, en Gipuzkoa y en Bizkaia.

En lo que se refiere a la forma, se trata de unos presupuestos neoliberales, propuestos sin un debate o participación social previo, puesto que prevalecen los intereses de las patronales, élites económicas y partidos conservadores de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

En lo que respecta a los contenidos, su objetivo es el desarrollo del Acuerdo de Gobierno logrado entre el PNV y el PSE. Por una parte, la recaudación del dinero público no es suficiente, ni justa, puesto que las empresas y las rentas de capital pagan mucho menos de lo que debieran pagar. Y por otra parte, no se realizan las inversiones necesarias para el desarrollo del sector público, para la creación de empleo y para responder a las necesidades sociales.

En Araba, Gipuzkoa y Bizkaia hay riqueza para garantizar las necesidades de la ciudadanía. Al mismo tiempo, también existe una mayoría social favorable a unos presupuestos sociales, participativos y soberanos, para poder variar las prioridades políticas.

Hemos denunciado que los presupuestos del Gobierno Vasco son neoliberales. Hay alternativas sociales, pero nuestros mandatarios y mandatarias no tienen voluntad política para recorrer dicha vía. Teniendo en cuenta cuales son las bases presupuestarias, está claro que no hay opciones, a que desde un punto de vista social, se llegue a un acuerdo sobre el proyecto. Las alternativas deben darse a conocer con claridad. Por ello, tal como lo hicimos en el Labrit en diciembre, para reivindicar unos presupuestos sociales, participativos y soberanos, el 17 de marzo, a partir de las 10:30 realizaremos un acto en el frontón de Mendizorrotza en Vitoria-Gasteiz. A continuación, realizaremos una manifestación que llegará hasta el Parlamento, bajo el lema **“presupuestos sociales, participativos y soberanos para EL CAMBIO SOCIAL”**.

## **NUESTRAS REIVINDICACIONES SON:**

1. Reivindicamos el cambio social. **Necesitamos y queremos realizar un cambio estructural en las políticas públicas**, que se base en el reparto de la riqueza, en la creación de un empleo de calidad, en la sostenibilidad de la vida y en la

defensa de la libertad y los derechos culturales.

2. Requerimos que se realice una **profunda reforma fiscal**, para las personas que más tienen paguen más. Exigimos que se termine con el tratamiento privilegiado que se ha otorgado durante los últimos decenios al capital y a las rentas altas. Reivindicamos una política fiscal justa y progresiva que posibilite el reparto de la riqueza. Dichas medidas resultan necesarias para que aumente la recaudación, siempre en el objetivo de impulsar los servicios públicos, el empleo, la protección social y los derechos lingüísticos y la cultura.

3. La sociedad tiene contraída una gran deuda con las mujeres, pues gracias a ellas se realizan los trabajos de cuidados de personas en los que se sostiene la vida cotidiana, realizándolo, además, de una manera invisible y precaria. **Los presupuestos, que tienen perspectiva de género**, son herramientas básicas para responder a las necesidades específicas de las mujeres, también para garantizar una vida digna para la mayoría y para cambiar las relaciones de poder estructurales entre los géneros.

4. Debe establecerse un control público sobre la producción de energía y la comercialización, impulsándose **tanto la transición del modelo energético como la producción y la actividad sostenible que posibilita la soberanía**.

5. Interrupción de los proyectos del Tren de Alta Velocidad, Fracking, pozos de gas, Garoña, Incineradora, . . . Deben paralizarse todos los proyectos que son perjudiciales para la naturaleza y para nuestra salud, todos **esos proyectos que limpian la caja presupuestaria**; debe impulsarse un debate social participativo; el gasto que suponen dichos proyectos se debe invertir en protección social.

6. Reivindicamos **un sistema público de protección social integral, digno y de calidad**, que se sitúe en la dirección de un modelo social y que sitúe en el centro a la sostenibilidad de la vida. Para ello:

- Se debe aplicar tanto a la Renta de Garantía de Ingreso (RGI) como a otras prestaciones que gestiona Lanbide la subida del 8% que ha tenido el Salario Mínimo Interprofesional.
- Que dejen sin efecto la disposición adicional que establece una reducción del 7% en el importe de la prestación social.
- Deben darse pasos hacia un sistema público propio de pensiones.

7. **Debe garantizarse unos derechos sociales básicos a toda persona**, no discriminatorio y que priorice a las personas en situación de emergencia social:

- Debe garantizarse el derecho a la vivienda de alquiler social, debe establecerse un impuesto a la vivienda vacía.
- La cobertura de toda situación de dependencia debe realizarse por medio de servicios públicos de calidad.
- Servicio de salud y atención universal.
- Entre 0 y 3 años y en las restantes etapas (incluida la educación superior), deben cubrirse, gratuitamente, todas las demandas en la red pública.

8. Reafirmamos el compromiso de llevar hasta las últimas consecuencias **la auditoría de deudas**. Los autores de la deuda son las grandes obras, los movimientos ocultos y una oscura red de empresas públicas. Vemos a la auditoría como un paso para no pagar dicha deuda ilegal.

9. Reclamamos unos **presupuestos participativos**, tramitando medios que posibiliten la participación ciudadana tanto en el diseño como en la decisión de las políticas públicas.

10. Reivindicamos **el derecho a decidir soberanamente sobre el modelo social y económico** en Araba, Gipuzkoa y Bizkaia.

**Gasteiz, 15 de marzo de 2017**